

Kontaketa, artearen hondar

Arte publikoa eta istorio kontaketa aztertuko dituzte Bilbon; Euskal Herriko eta nazioarteko artistek parte hartuko dute

Phil Collinsek bere argazkilari lanaren inguruko gogoeta egin du BERRIAN

Nagore Ares Amaya Bilbo

Gaurtik hasita eta hiru egunez, artearen publikotasunaren eta istorio kontaketa inguruko hausnarketa egingo dute *Going Public-Telling it as it is?* sinposioan, Bilbon. Performance bidezko hitzaldiak eta esku hartze artistikoak antolatuko dituzte hiriko zenbait leku eta hainbat hedabidetan. Beste askoren artean, parte hartuko dute Itziar Barrio, Alex Reynolds, Maria Ruido, Martha Rosler, Asier Mendizabal, Olof Olsson eta Falke Pisano artistek. Phil Collins artistak ere parte hartuko du gaurko BERRIAN egindako esku hartze artistikoarekin. ENPAPEk (Europako Arte Ekoizleen Sarea) antolatuko du egitasmoa. Sinposioko azken eguna Gasteizko Artium museoa egingo dute.

Euskal Herriko eta atzerriko artistak hautatu dituzte, zenbait herrialdetan istorio kontaketa eraikitzeak dauden formak aldearatu. Lengoaiki eta hizkuntzak

berebiziko garrantzia izango dute artista guztien lanetan; izan ere, istorio kontaketa gaia aukeratu dute arte publikoan duen eraginagatik: «Arlo publikoan landu behar den heinean, arte publikoan oso garrantzitsua da jendea egotea eta ideia horiek konpartitzea. Hor dira, berritua ere, lengoia eta hizkuntza. Horregatik erabaki genuen formatu hori erabiltzea eta ez izatea ohiko sinposio bat, baizik eta istorio kontaketa oinarri hartuz, artistei hitza ematea eta ez hasi gu (ekoizle eta komisarioak) dena kontatzen», azaldu dute Bilboko Consonni arte ekoizpen etxeko kide eta sinposioaren antolatzaileek.

Sinposioa hiru bloketan antolatuko dute. Lehenengo biak nahi duen orentzat izango dira. Artisten lanak izango dira horietan ikusgai, kalean zein Bilboko zenbait aretotan. Hirugarrena, berriz, atek itxita egingo dute, eta artearen munduko profesionalak baino ez dute parte hartuko. Gasteizko Artium museoa



Larunbata bitartean egingo dute sinposioa. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

egino dute eta hogeit bat elkarteko ordezkariak ENPAPEk erakundearen etorkizunaz eta arte publikoaren inguruan eztabaidatuko dute. ENPAPE orain dela urte bi sortu zen, arte publikoaren inguruan eztabaidatzeko Europa osoan. Bilboko Consonni arte ekoizpen etxearekin batera, Europako beste zenbait arte ekoizpen etxek osatzen dute; besteak beste, Herbehereetako, Erresuma Batuko, Errumaniako eta Suediako elkarteek osatzen dute erakundea.

PHIL COLLINS

■ **Izengabekoa.** Bere argazkilari lanaren inguruko hausnarketa egin du Phil Collinsek BERRIAN egindako esku hartze artistikoa. Normalean, bere lanetarako argazkia erabiltzen badu ere, beste argazki batek egunkariari ekarri handirik egingo ez ziolakoan, gutun baten bidezko gogoeta bat aurkeztu du. Orain dela hamar urte Donostian izan zen lan bat egiten, DAE Donostiako Arte Ekinbideak proiekturako, eta egun haiek gogora ekarri ditu euskarazko testu baten bidez. Pribatutasunaren eta publikotasunaren formatuekin jokatu du, halaber, eta fikzioa erabili du, egunkariak printzipioz pribatua izan beharko lukeen gutun bat publiko egiten duen sentipena sortaraziz.

Maria Mur • Bilboko Consonni arte ekoiztetxeko kidea eta sinposioaren antolatzailea

«Asko interesatzen zitzagun artistek hedabideetan esku hartzea»

N. Ares Amaya Bilbo

Arte publikoaren eta istorio kontaketa inguruko hausnarketa egingo dute hurrengo egunetan Bilbon *Going Public-Telling it as it is?* sinposioan. Maria Mur antolatzailearekin bildu da BERRIA, landuko dutenaren gakoak jakiteko.

Zer landuko duzue sinposioan, eta nola egingo duzue?

Ez da ohiko sinposio bat izango; izena mantendu dugu, esanahi etimologikoa interesatzen zitzagulako. Elkarrekin egotearen eta ideiak eztabaidatzaren ideia interesatzen zitzagun, baita kontzeptuak ospatzearen ideia ere,

eta hori oso formatu ezberdinetan egin daiteke. Ez dugu ohiko hitzaldien bidez bideratuko, baizik eta artistek *storytelling* (istorio kontaketa) nola bideratuko duten ikusiko dugu. Ohiko sinposioaren egitura Artiumen egingo ditugun profesionalen topaketan mantenduko dugu gehiago, baina hori saio itxian izango da.

Zein artistek hartuko dute parte, eta zer egingo dute?

Hiru egun izango ditugu, eta egun bakoitzak formatu bat izango du. Lehenengo egun bietan artistak bertan izango dira. Bihar hasiko gara [gaur] Itziar Barrioren *We Could Have It All* (Dena eduku genezakeen) proiektuare-



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

kin, Arriaga antzokian. Anplifikazioarekin eta erreplikapenarekin lotutako hiru fenomeno aztertuko ditu horren bidez. Alex Reynoldsen *Boom* lana ere izango dugu, Zabalbide kalean, lehen bideokluba zen lokal batean. Kanpoko soinuak barruan amplifikatzen eta egunekoasunari soinua jartzen saiatuko dira hiru efektistak. Azkenik, bihar Maria Ruidoren *Electroclass* filma ere ikusi ahaliko da Berreginen Museoa eta ETB3n (22:00etan). Guretzat garrantzitsua zen Phil Collinsek eta Martha Roslerrek BERRIAN eta *El Correo*-n esku hartzearekin batera, Maria Ruidoren lana ETBn agertzea.

Artistek zergatik egin dituzte esku hartzeak hedabideetan?

Arte publikoaren inguruan hitz egitean, badirudi kalean egiten dena baino ez dela, baina arlo publikoan egiten den artea da, eta ideia horiek modu ezberdinetan plazaratzen dira. Komunikabideek ideiak zabaltzeko modua ematen dute, beraz asko interesatzen zitzagun artistek hedabideetan esku har ezaten eta ez agertzea bakarrik ohiko berrien eta erreportajeen bidez.

Zer nabarmenduko zenuke Phil Collinsek BERRIAN egindako esku hartzeaz?

Asko poztu zen esku hartzea BERRIAN egin behar zuela jakinda; izan ere, berak euskaraz egin nahi zuen. Deitu nionean, esan nion kontakizunak berebiziko garrantzia zuela proiektuan. Normalean argazkiekin lan egiten du, baina argazkiak egunkarira ezer berririk ekarriko ez zuelakoan, bere lanaren inguruko gogoeta bat egitea erabaki zuen.

40 » Jean Echenozek Nikola Tesla ingeniariari buruz idatzitako 'Ximistak' nobela argitaratu dute

41 » Tonino Guerra hil da, Fellini, Antonioni eta Viscontirekin lan egin zuen gidogilea

Artea → 'Going Public-Telling it as it is?' sinposioa

Badakizun bainon nahi den niretzat idatzu. Baitragana fruitu bila josten bezala. Argazkigintza, ordea, erraza da. Kamerak elkarrekiko interesak duten alderdiak batu egiten ditu. Baldintzak edo apolaran araberak erakarki edo aldaratu egiten da. Kamerak zuregana nire interesak pizten du, eta halitako niregana zure interesak ere pizten. Baita auzardia ere. Badakit, ordea, batorako, kamera bat izan bada ni lehengosoa baitaizteko pizten duena, nire kamerak ezin zidana bidaltzeko balioa, ezinagunakia hitz egia eta mundua argazki sailotatik haraindi beste ezer ez halit bezala ikusten puzaititu zidana. Kamera, gertakarien grabatzean fidela baino, eragile bat da - isori entzuten ez dion eta okintzaren bera zidana tinko mantentzen den horri liburtzaila, menderakaitz, asozina. Kamera, bai horixe, gogurtu neula da, eta asore ezan gabe puzaitzen duen intzitatzen, gure arteko operari hau, segundak birerageiren edo okultorearen klik egiteko behar duen une horretan sakabanatu egiten da, arrosa bezala. Denok ikiztu kamera lapur bat dela - irudia harrapatu egiten da - halere inork ez zidan esan nolako asatur txorri den, nola lapurtuko zuen zure burugatik itzultzeko argia, eta ez zure bihotzekoa. Eta da zuri hain esperantzarik gabe ezakini nahi izan dizudan gauza bera eta garrantzitsua dena, are txarragoa, besterik burketa nahi nahi.

Gogoratzen dugu nola orain hamar urte Mara Cristina Hoteloko suite batean eseri ginen haueztarri orduko casting asatoki bat egiteko, gure real society izendatu genuen argazki-saltoa, non zabalak, lekuko aldiakarietan jarriko iragarkiari erantsua ziren portuak arruntak, zereazko zereazko errega edo gutia kenduta argazkia egitera storri sira? Berrogeietako ajea nuen, ezin izan bainintzen mugitu, hari eta banako eta bikote desfilak storri eta intzitate eta desira karrusel batean bilutu, eta tios egia, kanpala jo, ezarriak koatatu zituzten arte. Aldizka bihotza gelditzeko zorria izan nuen. Gainera azalera aldera gaste koardilak ate joka zuden, kalfiatzen edaten, sartzen aldarrika. Gogoratzen dut une hartan hura koatatu ote zen galduta zidana, iraditu al zitzaizkan aitorleak al nongoen bezala sakonki motibatuta dardela? Abatea zere agunak berrogeita hamar aldiz baitaizteko al da?

Jendek ezinagunak, errukia, loturari buruz hitz egiten duzuen, esango nuke nik ordea inbidia izan, hiltzaila, jarraitzailearen puzaitu ikusten dudala. Zergatik ezin zaitut ez markoa edo berria ordezkatu? Zergatik da banaketa beren agnia? Beti nahi izan dut bai ikus ezakoen gutia izan eta, aldi beren, gutia ordezkatu ere. Oajektu egitearen baitaizteko esperientziak beharrezko, ezinagunaren zeri zorroztan egitea.

Bonatan uste nuen zure irudia argazki egitean zuk ni baitaizteko lortuko nuela. Kameraren begi hutsak ezaten duen arreta eta aliozazio bitxia, norbere intzaren disoluzioa eta horri datzekia ezinagunak dela - badakizun, Klaka entzun arte zain zaiden une hori, nola klakatzeko zentzen haginak, irribarre bota hartan eta arnagunak zereazko "Klaka" esanera nola zure baitaizteko gainberaldia ezaten zenuen, zure irudia ezate eta ezakoen zorroztan zinen artean - disoluzio hura, gaurri beren izutu eta irribarre galdutua, zuri hori ezakitzeko niri antzeko zereazko zentzu araziko zidana uste nuen. Benda bikoitza, Argazki baten ordea, izaten, ustokakako ezarrikazioa izan zitekeen, gutxiagotze ikaragarria. Homen, Du, Da.

Batzuetan puzaitzen dut iradi batak gehien entzun nahi dugun hori zereazko leil arazi beharke lukela. Zergatik ez? Inguruzkeriko ezer ez agertzen guri. Ankerria eta bidogaba izaten. Fuzati eta txolina izaten. Gogortu eta manufaktura, eta zuzenean hitz egiteko ikuslearen ezaridura koatari, gizona, bere zere horretan, are gertakari bihotzengoa izan daitzeko. Auzo ezaten dut nire ezaridunaren aurrean, ezaridunak buruz jakituriaz hitz egiteko nire interes ezaren aurrean. Bana nahi dudana da, egian beste batzuetan gertatzen zaiena baino erria, nik ezaridun ez dudala zuzenean zuzenean zentzen dudala.

Faltan ezaridun zentzen zere laguna,
Phil